

## UDAL-BATZARRA 2/05

### UDAL-BATZARRAK, 2005eko Otsailaren 1ean EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

#### **PARTAIDEAK:**

#### **ALKATEA:**

Fidel Azpiroz Arrillaga

#### **ZINEGOTZIAK:**

Jose Ignacio Otermin Garmendia

Nieves Alarcos Martinez

M<sup>a</sup> Carmen Egurza Salaberria

Mikel Zubillaga Galarraga

#### **IDAZKARIA:**

Garikoitz LEKUONA IZETA

ANOETAko Udaletxean, 2005eko otsailaren 1ean arratsaldeko zortziak eta hamar direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Kepa De la Iglesia Sanchez, Silvia Leite Dos Santos eta Jesus M<sup>a</sup> Arsuaga Lizaso zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Garikoitz Lekuona Izeta jna.

#### **1.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA 504TIK 545ERA, BIAK BARNE.**

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 504tik 545ra, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

Idazkari akzidentalak jakinaren gainean jartzen du akats bat tarteko 533tik 545ra bitarte zenbaturiko ebazpenak 2005 urtearen hasieran luzatuak izan direla eta ondorioz, urtearen aldatetarekin batera, ebazpen hauei dagokien zenbakia 1etik 13 bitartekoa dela.

Iñaki Iturriotz-ek hitza hartu du eta 545 ebazpenari dagokionez, hau da, 2005 urteko 13. ebazpena, alkatearen dedikazioa dela eta honen inguruko txostena bere garaian eskatu zela adierazten du, egun inolako erantzunik eman ez delarik Udalaren aldetik,

Alkateak, Fidel Azpiroz, txostena prestatzea eskatu dela jakitera ematen dio eta txostena eskuratu bezain pronto beraren edukinaren berri emango zaiola adierazten dio.

## **2.- KULTURA ETA EUSKARAKO BATZORDE INFORMATZAILEETAKO LEHENDAKARIEN ORDEZKAPENA.**

Arrazoi laboralak tarteko, lan baldintzen aldaketa eta abar, batzorde buruen aldaketak egin beharrear aurkitzen dira egoera zuzendu asmoz eta ondorioz, Kultura, Gazteria, Aisialdi eta Kirolak Batzordeko batzordeburu berria Jesus M<sup>a</sup> Arsuaga Lizaso zinegotzia izango da eta batzordekidea Mikel Zubillaga Galarraga. Euskara eta Hezkuntza Batzordeko batzordeburu berria aldiz, Fidel Azpiroz Arrillaga izango da eta batzordekide berria Jesus M<sup>a</sup> Arsuaga Lizaso.

Aho batez onartzen da.

## **3.- UEMA ETA TOLOSALDEKO HEZIKETA ETA ENPLEGURAKO ESKUALDE ELKARTEAN UDALAK DITUEN ORDEZKARIEN ORDEZKAPENA.**

Aurreko puntuan adierazitako arrazoi berdinegatik UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) eta Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkartean Udalak dituen ordezkariak ordeztu beharrear aurkitzen dira. Honela, hemendik aurrera UEMAko ordezkariak Fidel Azpiroz Arrillaga eta Mikel Zubilla Galarraga izango dira. Eta Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkarterako ordezkaria Fidel Azpiroz Arrillaga.

Aho batez onartzen da.

## **4.- UR BILTEGI BERRIA ERAIKITZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ALDEKO LUR-LAGAPENA.**

Jose Ignazio Oterminek hitza hartu eta ur biltegi berriaren inguruko azalpenak ematen ditu. Aditzera ematen duenez, ur biltegi berria eraiki beharra dago eta planoak behin prestatuta konkurtsora aterako da ur biltegiaren eraikuntza, zeina ez da ur biltegi zaharraren gainean eraikiko, alboan baizik, horrek lur berri batzuk okupatzea eskatzen duelarik eta lur berri horien artean batzuk Anoetako Udalarenak dira. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Diputazioaren aldeko udal lurren lagapena egitea beharrezkoa da eta halaxe egitea proposatzen da.

Aho batez onartzen da.

## **5.- BIZILAGUN BATI EGINDAKO MEHATXUAK GAITZESTEA.**

Mikel Zubillagak hitza hartu eta mehatxuak direla eta prestatutako gaitzespen gutuna irakurri du:

*“Arriduraz eta era berean kezka handiz ikusi eta hartu ditugu urtarrilaren 19ko gauean herritar baten aurka egingako mehatxuak horma pintaketa bitartez. Beraz, udalbatza honek garbi azaldu nahi du bere gaitzespenik sakonena eta tinkoena. Herritar honen aurka jaurtitako mehatxuak gure baitan gaindituta zeudela uste genuen hainbat egoera, oroitzapenak datorzkigu gogora eta inolaz ere ezin ditugu onartu egoera haien errepikatzea. Horregatik gure indar eta ahalmen guztiarekin gaitzesten dugu gertatutakoa eta gure babesa eskaintzen diogu herritar honi, bere garaian berari zuzenean adierazi genion bezala gaitzespenerako idatzi honen proposamenaren bitartez.”*

Iñaki Iturriotzek hitza hartu eta idatzi bat irakurtzen du:

*“PINTADEN AURREAN PLATAFORMAREN IKUSPUNTUA.*

*Pintada bidez egin duten mehatxu hau ez dugu uste bera bakarrik hartuta tratatzea denik egokiena. Pertsona batek duen arazoa dela ematen baitu honela. Eta ez da horrela.*

*Gatazka politiko bat dago 2 estatuen eta Euskal Herriaren artean eta gatazka honen ondorio dira mehatxu hau eta beste gauza asko. Hala nola presoan eta beren ingurukoan egoera, errepresioa, atentatuak,...*

*Anoetarrok Auzolanean plataformak bat egiten du BATSUNAK Anoetan gatazkaren konponbiderako egin zuen proposamenarekin: elkarrizketan eta akordioan oinarrituz hain zuzen ere.*

*Elkarrizketa prozesuaren helburua: Prozesu honen helburua gatazka politikoa eta armatua gainditu eta Euskal Herriaren eta euskal herritar guztien eskubide ororen errespetuan oinarritutako eskenatokia ahalbideratzea da.*

*Guzti honetan Euskal Herriari dagokion gatazkari buruz ari gara, baina honekin lotuta beste hainbat puntu ere badira Anoetan bertan, bertatik hasita egin beharrekoak eta egin daitezkeenak, inongo borondaterik izanez gero behintzat.*

*Anoetarrok Auzolanean plataformak azken hauteskundeetan jasotako 409 botoei dagozkien 4 zinegotziren ukapenez ari gara. Izan ere, herriak erabakitakoaren araberrako udala osatzea zuen esku dago eta bideak badaude, horregatik beste behin eskatzen dizuegu herri borondatearen aurka okupatutako 4 aulkiak herritarrek erabakitakoari itzultzea. Neurri hau izango baita Anoetak bizi duen egoera konpontzeko ezinbesteko pausua eta bidenabar, Euskal Herriak bizi duen gatazka egoerari irtenbidea aurkitzeko garaian neurri garrantzitsua.*

*ANOETARROK AUZOLANEAN HERRI PLATAFORMA.”*

Mikel Urkolak hitza hartu du:

*“Badakit alkateak berarekin hitz egin zuela, baina ez dut uste gauzak erabat alkateak kontatu bezala gertatu zirenik. Mehatxatutako herritarrek alkatearen gaitzespena*

*onartu zuen, baina alkateari adierazi zion ez zuela ez dagozkion 4 zinegotziz osatutako Udalbatzaren gaitzespenik onartuko.”*

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-Lehendakari jaunak bilera amaitutzat jotzen du arratsaldeko zortziak eta hogeirenean, eta neuk Idazkari akzidentalak ziurtatzen dudalarik.